

# GRANDES TRAVESÍAS DE URDABURU

## LARUNBAT ETA IGANDEETAKO TALDEEN TXANGOAK

**Iñaki Prieto**

(Texto e ilustraciones)



Divisoria, 3ª etapa. Subiendo al Orhi. 15-09-2012.

**E**l tiempo no se detiene y en Urdaburu Mendizale Elkartea seguimos organizando numerosas actividades para difundir la montaña en sus diferentes facetas. Destacamos especialmente las excursiones montaÑeras, que nos permiten recorrer y conocer montes, sierras, pueblos, valles y otros rincones interesantes que nos brinda la geografía de Euskal Herria, así como otras zonas montaÑosas más o menos cercanas.

La gran mayoría de nuestras salidas se enmarca en proyectos por etapas; es decir, largas travesías lineales o circulares donde se realiza una etapa al mes, comenzando donde se terminó la anterior. Esta continuidad temporal y geográfica permite una mirada atrás a lo que se recorrió recientemente y a lo que se hará próximamente, lo que ofrece una mejor visión de conjunto que las excursiones "sueltas" o "inconexas". No en

vano, esta continuidad es la clave de que este tipo de salidas gocen de mayor aceptación, "enganchando" y fidelizando a los participantes.

En Urdaburu compaginamos 2 proyectos por etapas, con 2 salidas fijas al mes: el tercer sábado y el primer domingo. El "grupo de los sábados" lleva 23 años recorriendo Euskal Herria de un extremo a otro, circundando provincias o cuencas, caminando por rutas o cañadas históricas, y otras veces trazando nuevas rutas sobre ideas inexistentes.

Echó a andar en 1991 con la Vuelta a Gipuzkoa como un grupo de amigos (al margen del calendario oficial de Urdaburu, sin autobús), para luego "oficializarse" como excursión de nuestra sociedad. El grupo de los domingos o "grupo de senderismo" suele salir preferiblemente el primer domingo de cada mes (fecha que coincide con muchos puentes y festividades, y a menudo se

traslada al segundo domingo). Comenzó su andadura en 2002 con el Camino francés de Santiago (el de Roncesvalles), para continuar con otras rutas de carácter histórico-cultural. Luego se abrió el abanico a otros proyectos de carácter más “montañero”, con un perfil más exigente y similar al de los sábados, hasta que poco a poco se fue superando esa “barrera” (más psicológica que real) entre ambos grupos, que en un principio parecían bastante estancos.

Hoy en día muchos participan por igual en ambas excursiones, pues apenas difieren en el tipo de recorrido y su perfil (esto depende del proyecto vigente y de cada etapa). La diferencia más visible está en la participación: actualmente acuden 55-60 personas los sábados y 25-30 los domingos, lo que de por sí da mayor “ligereza” al grupo dominical. Y es que el sábado suele ser “mejor” día para quien puede optar, con menos prisa por volver a casa pensando en las obligaciones laborales del lunes. Pero al margen de todo esto, la diferencia principal entre ambos grupos está en aspectos meramente organizativos y no tan relevantes. En el de “senderismo” (tal y como indica su nombre) solemos recorrer GRs o rutas ya señalizadas. Salvo excepciones, nos limitamos a seguir las marcas de pintura, el trazado “oficial” de la ruta, con un guión ya existente. El grupo de los sábados solemos diseñar activamente el trazado y guión de la ruta. En algunos proyectos su propio nombre establece con claridad cuál debería ser su recorrido y deja un reducido margen de libertad. Otros proyectos sugieren interpretaciones diferentes y un trazado mucho más libre.

En Urdaburu llevamos también un grupo de escolares de Orereta ikastola, cuyo calendario se ciñe a cada curso y a otros requisitos del concurso escolar. También se está fraguando algo que podría ser el relevo de aquel grupo de “veteranos”, que funcionó hasta 2011, hasta que lo permitió la avanzada edad de sus integrantes. Este nuevo grupo comenzó hace más de un año. Salen (en coches) cada jueves, a menudo en plan mañanera. La mayoría son socios prejubilados o recién jubilados que participan asiduamente en las excursiones de nuestra sociedad. Este grupo, que en ocasiones roza o supera los 20 participantes, recibe jocosamente el sobrenombre de “comando aspirina”.

## BI TALDEEN HISTORIA LABURRA

### LARUNBATETAKO TALDEA

Larunbatetako txangoek 1991. urtean izan zuten abiapuntua, hasiera batean lagun talde gisa (Urdabururen egutegi ofizialetik kanpo). Bazkide talde txiki batek hilean behin mendira joateko aitzakiaz, Gipuzkoako Bira egitea planteatu zuen eta egun bezala hilabeteko 3. larunbata ezarri zen, eta ezinbesteko baldintza bat: eguraldi iragarpenak ez zuela (alde zurretik) irteera inola ere zapuztuko. Hor zegoen egitismo honek lortuko zuen arrakastaren gakoa: irteera eta eguna ziurtatzea, eta aldi berean taldekideen nolabaiteko fidelitasuna. Lehen etapetan talde txikia bazen ere, berehala zabalduz joan zen. Hasiera batean garraio publikoaz baliatu ziren. Aurrerago autobus txiki batekin hasi ziren, autobus normal bat behar izan zen arte.

Gipuzkoako Bira amaiturik **Ur banale-  
rroa** eta ondoren **Eronkariarren abelbidea** egin zituzten. Neurri batean pinturaz markatuta edo liburuetan deskribatuta agertzen ziren ibilbide “eginak” jarraitzea izan zen xedea. Baina hurrengo egitismoak, **Nafarroako birak** (1995-99), apustu ausarta ekarri zuen: inon jaso gabeko ibilbide bat guk geuk mapa hutsetik “eraikitzea”. Izan ere, garai horretan zenbait bazterri buruz dokumentazio eskasa zegoen, eta batzuetan informazio iturri bakarra orduko mapa “katastralak” ziren, sarritan zaharkitutako informazioa eta bide fidagarri gutxi zekartzaten mapak. Honek abentura puntu bat ekarri zien larunbatetako irteera hauei, eta, batez ere, txangoen informazioa prestatzeko modu eredarri bat: ordutik gaurdaino irteera bakoitzean mapa, perfila eta ibilbidearen testua prestatu eta banatzen zaie mendizaleei. Apustu ausart horrek sekulako arrakasta izan zuen, 42 etapa eta 4 urteko proiektu luze honek une gogoangarriak utzi baitzituen. Dударik gabe, Nafarroako bira inflexio puntu garrantzitsua izatera iritsi zen talde honen ibilbidean. Liburu bat ere argitaratu zen, txangoen planteamendua, kronikak, mapa etab. biltzen zituena.

Nafarroako biraren ildo beretik planteatu ziren hurrengo proiektuak: **Batzango bira** (1999-2000) eta bereziki **Euskal Herriko ur banale-  
rroko hegoko ardatza** (2000-2001). Alegia, eredu berbera jarraitu zen: mapatik eraikitako ideia



berri eta aberasgarriak, leku arrotzak igarotzea eta liburu bat argitaratzea (ezer idatzirik ez baze- goen). Ondorengo egitasmoa **Errenteriako bira** (2001-2002) izan zen, bere mugak 3 etapatan egin genituen. Gauza berezia izaki, sekulako jendetza mugiarazi zuen. Horren ostean "asmatuta" zeuden proiektuetara jo genuen berriro, **Bizkaiko bira** (2002-2004) eta **Urolari bira** (2004). Liburuetan bilduta zeudenez gero, prestaketa lanak asko arindu ziren.

Urteen poderioz, egitasmo berriak plan- teatzeko orduan, pixkanaka hainbat irizpide ezarri ziren, proiektua betiere aurrekoa ez bezalakoa izan zedin: gauza luze baten ostean beste labur bat,

bidaia luzeen ondoren hurbileko zerbait, lurralde/ udalerrri birak eta ibai-arroen birak tartekatzea, hainbeste biraren ondoren noizbehinka zeharkaldi linealen bat. Baina batez ere, ahal zen neurrian, etapa eta bideak ez errepikatzen saiatu ginen, egin genuenetik denbora asko iragan ez bazen behintzat.

2005ean urrutira jo genuen berriz: **Aez- koako bira**. Negu horretako elurteek ezusteko ugari eman zizkiguten eta 7 hilabete behar izan genituen bere 5 etapak egiteko. Bestalde, proiektu honekin sekulako jendetza biltzea lortu genuen eta hemendik aurrera urte askotan 2 autobusekin irten ginen, oraintsu arte.



Divisoria, 1ª etapa. Comienzo en el collado de Ernaz. 16-06-2012.

Hurrengo egitasmoak, **Erreteriatik 7 hiriburuetara** izenekoak (2005-2010), ideia iraultzaile bat ekarri zuen: hainbestetan erabilitako "muga" (lurralde edo ibai-arro batena) edo "bira" terminoei ihes egin zien. Oraingo honetan, mendi txangoetan hain arrotzak zaizkigun hiriburuak ziren ardatza, edo, hobeto esanda, aitzakia, bide eta inguru berriak uztartzeko. Inoiz planteatutako proiektu luzeena izan zen (51 etapa) eta gauza askorengatik Nafarroako bira gogorarazten zuen: bere iraupena, mendi gabeko inguru luzeak, izandako arrakasta...

Proiektu honetan ibilbidea inoiz baino "askegoa" zen eta horri esker lekuri eder eta interesgarrietatik pasarazi genituen etapa asko, inguru edo mendi berriak bilatuz, eta ibilitako mendizerrak norabide berrietan zeharkatuz. Oro har, oso ibilbide heterogeneoa suertatu zen, monotonia bakarra Iparraldeko lehen etapa lauetan egon zen, mendia iritsi arte. Gero mota guztietako paisaiak ikusi ahal izan genituen. Akaso, gabezia bakarra hego-hegoko paisaia lehorrak urrun geratu zirela. Baina txangoen prestatze lanetan bete-betean "aro teknologikoan" sartu ginela esan daiteke, informazio eta lan tresna baliagarriak esker. Ordutik gaurdaino ibilbideak ordenagailuz prestatzen dira, mapez, ortoargazkiez eta GPSez grabatutako tracken laguntza estimatuaz. Ibilbide erreal edo teoriko hori zehatz-mehatz GPS bitartez jarrai daiteke txangoetan (hortik ibiltzea posible bada, honek ere noizbait ezustekoak ematen baititu). Honekin guztiarekin neurketa zehatzak egiten dira eta ibilbideak birtualki (Google Earth bitartez) ikusteko aukera dago eta leku bakoitzean zer dagoen begiratzeko modua: basoa, zelaia, pistak, errepideak, urbanizatuak...

7 hiriburuen ostean ibilbide lineal bat egitea otu zitzaigun, **Ardoaren eta Arrainaren bidea** (2010-2011). 12 etapa hauetan Euskal Herria hego-ipar norabide "desberdin" batean zeharkatu genuen, ordu arte zapaldu gabeko Arabar Errioxa eskualdetik Bizkaiko kostara. Lehen erdian gehienbat perfil samurrak nagusitu ziren eta honek jende berri asko animatu zuen. Proiektu hau "GR-38" existituko ez balitz bezala osatu genuen (markak aspalditik desagertuta baitzeuden) geure aldaerak eginez, baina ustekabean ibilbidea berreskuratuta eta balizatu berria topatu genuen. Dena den, geure ibilbideari eutsi genion.

Hurrengo proiekturako zerbait hurbila eta laburra bilatu genuen, aspaldiko partez ibai-arro bat: **Urumeari bira** (2011-2012). 7 etapatan egin genuen. Desnibel handiko txangoak ziren (azken urteetako media ikusirik), izan ere, hainbatetan autobusera heltzeko mendi-errenkadiatik ibarrera jaitsi beharra zegoen eta hurrengo etapen igoera luze bat mendia berriz hartzeko.

**Valdorba-Andia abelbidea** (2012) izan zen ondorengo egitasmoa. Nafarroako inguru honek NW norabide "berrian" zeharkatzeko aukera eman zigun, 4 etapatan. Aurrekoak ez bezala, paisaia desberdinak eta perfil samurrak ziren. Zeharkaldi labur honekin egutegia gure beharretara egokitu genuen, hurrengo proiektua derrigorrez uda betean hasi behar baitzen.

**Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeen banalerroa** (2012-2014) da larunbatetako talde honen azken proiektua. Duela 20 urte eginitako zeharkaldi berbera da, baina orain kontrako norabidean, ekialdetik mendebaldera.

**Proyecto actual. Divisoria de aguas del Cantábrico y del Mediterráneo (2012-2014).** Estamos a punto de concluir este ambicioso proyecto de 22 etapas que echó a andar con gran ilusión hace 2 años. Se trata del mismo recorrido realizado por este grupo de los sábados hace 20 años, pero esta vez en dirección este-oeste. Recorre la espina dorsal de Euskal Herria atravesando los macizos y sierras más importantes y conocidas.

La primera mitad, hasta verano de 2013, la meteorología hizo de las suyas, muchas de las excursiones fueron en días de alerta (lluvias, viento, nieve, etc.), lo que, además de reducir la participación, condicionó y alteró no pocas veces el recorrido previsto. La nieve nos hizo intercambiar, suspender y abortar etapas. La segunda mitad ha sido completamente diferente y los elementos atmosféricos apenas han incidido en el desarrollo normal de las etapas.

En estos momentos el proyecto estaría terminado si no hubiéramos tenido que suspender (o aplazar) las etapas 7ª y 8ª de 2013. El 21 de junio de 2014 hemos "recuperado" la etapa 7ª (entre Ibañeta y Urkiaga) y en el mes de julio de este mismo año haremos lo mismo con la 8ª (entre



Urkiaga y Belate). Con la comida anual de rigor daremos por finalizada la "Divisoria cantábrico-mediterránea" y empezaremos a calentar los pies para el próximo reto, la vuelta al Bidasoa, que abordaremos en septiembre de 2014.

## SENDERISMO TALDEA

Talde hau ez zen berez sortu; aspaldiko ideia bat egutegian sartzearekin gauzatu zen. 2002ko urtarrilean abian jarri zen taldea Frantziako **Santiagoko bidearen** Euskal Herriko zatia egiten. Zuberoako mugatik hurbil hasi zen, Navarrenx herrian. Arrakasta itzela izan zuen

lehen etapetan. Autobusa beterik irteten zen eta ez zegoen lekurik guztientzat. Esan beharra dago jende berri ugari erakarri zuela egitasmo honek, Urdaburukoa ez zen jende asko, nolabait esatearren "mendizale" petoak ez ziren "ibiltariak" edo "Santiagobidezaleak". Etapa luzeak baina lauak ziren ia beti. Talde honetako batzuek urteetan iraun zuten. Hasierako "overbooking" hori Iparraldeko etapetan bakarrik izan zen, ia inork ezagutzen ez zituen etapetan. Gero jende kopuru polit batek eutsi zion, bidaiak luzeegi bihurtu ziren arte. Euskal Herria igarota "ahal zen lekuraino" luzatzea erabaki zen eta horrela 16 etapa eginak genituela 2003ko ekainean Castrojeriz herriraino heldu ginen (Burgos hiriburua baino zertxobait



Divisoria, 14ª etapa. Cima de Aizkorri. 21-09-2013.



haratago). Honen jarraipen gisa, Aste Santu horretan Castrojeriz-León zatia egin zen.

Hurrengo proiektua **GR-1 edo Ibilbide Historikoa** (2003-2004) izan zen. Hemen ere Euskal Herriko zatia egin genuen 16 etapatan, Sos del Rey Católicotik (Zaragoza) Losa bailarako Pérex herriraino (Burgos). Oro har Nafarroako eta Arabako hegoaldea zeharkatu genituen herri ugari igaroz. Salbuespenak salbuespen, etapa samurrak ziren, mendi gutxiarekin. Santiagoko bidean sortutako taldea mantendu eta egonkortu zen. Garai horretan ezin esan daiteke ibilbidea balizatuta zegoenik, pintura baino gehiago liburuko testuarekin jarraitu behar baikenuen bide zuzena.

Honen ostean parentesi labur bat zabaldu zen mendizale kutsu handiagoko egitasmo batekin: **GR-20 edo Aralarko bira**. 2005eko otsailean hasi genuen Amezketan eta 5 etapatan egin genituen orduko 100 kilometroak, bide zahar eta paisaia heze eta atseginetatik.

2005eko urrian **Kostaldeko Santiagoko bidea** hasi genuen Irunen. Aurrekoan bezalaxe, Euskal Herriko atala zen helburu, baina jendearen erantzun ona ikusiaz luzatzea erabaki zen. Egun bakarreko 16 etapa egin ziren eta 2007ko martxoan Kantabria-Asturias mugara iritsi ginen. Eta honen jarraipen gisa Aste Santuko irteeran Avileseraino luzatu zen.



Pastoreo, 1ª etapa (2013-05-05). Cima de Andarto. 05-05-2013.



Gipuzkoa eta Bizkaiko ibilbidea espero baino "mendizaleagoa" suertatu zen, Gernikaraino batik bat, ahal zen asfalto gehiena baztertzen baitzen. Kantabriako zatian, ordea, ez ziren horretan saiatu ere egin. Etapen % 99 asfalto gainean egin behar zen eta ibilbideak ez zuen inolako xarmarik. Herri arteko paisaia "naturala" garabiek, urbanizazioek eta golf zelaiek osatzen zuten. Gogoan dugu Torrelavega inguruan ordu luze batez "lagun" izandako ur hodi hura.

Santiagoko bidearen ondoren, jarraipen gisa **Liebanarren bidea** planteatu genuen. Hiru etapatan egin genuen (2007ko maiatzetik uztailean), San Vicente de la Barqueratik Potesera. Mendi erraldoi arteko ibilbide honetan, Kantabrian zapalduko asfaltoa ahaztu nahi genuen eta paisaia ederretan barneratu. Baina usteak erdia ustel: ibilbide turistikoa zen eta hau ere ia dena asfaltoz egina.

**GR-21 edo San Inazioaren bidea** izan zen hurrengo proiektua, bi zatitan banatua: Xabier gaztelutik Iruñeara eta hemendik Loiolara. 2007ko urrian hasi eta 8 etapatan egin genuen. Garai horretan Nafarroan GRak deskatalogatuta zeuden. Balizajea oso eskasa zen eta, hortaz, nondik joan nahikoa zalantza. Lehen etapa atsegin baten ondoren, Pirinioetako autobia lanak ahal bezala saihestu eta Iruñea zeharkatzeko ibilbide bat asmatu genuen. Hemendik aurrera Plazaola trenaren bideari ekin genion. Noizbehinka marka zahar batek egiaztatzen zigun bere garaian GR-21 hortik pasa zela.

Etaparik altuenean elurra zapaldu genuen, Erga mendia zeharkatzean. Goldaratzen Aralarko birarekin (GR-20) bat egin eta 2005eko berbera errepikatu genuen Larraun eta Araitz bailaretan barna. Zati komun honetan balizajea hobetu (edo hasi) zela esan daiteke. Hori bai, Gipuzkoan sartu orduko, markak bikain. Otsabio mendi azpitik Altzo eta Alegiara jo genuen eta Intxurre menditik Albizturrera. Gero Bidania, Urrestilla eta Oinatz igaro eta Loiolako santutegian amaitu genuen. Beti bezala, jarraipen bat asmatu genion ibilbideari: **GR-120 edo Hiru tenpluen bidea**. Honek Loiola, Zumarragako Antigua eta Arantzazu lotzen ditu. Bi etapatan egin genuen (2007ko ekain eta uztailean).

Orain arte gehienbat erromes bideekin jardun dugu. Baina honelako GR hurbilak

agorturik, pixkanaka beste mota bateko ibilbideetara jo beharra zegoen. Ondorengo egitasmozat **Errokkariaren abelbidea** (GR-13 izandakoa) hartu genuen, larunbatetako taldeak bere lehen urteetan eginiko berbera.

2008ko urrian abiatu eta 6 etapatan osatu genuen, Bardeetatik Laza porturaino. Bardeak igaro orduko elurak etapa bat "apaindu" eta aurrerago buruhauste handiagoak ekarri zituen. Elur pilaketek Leire mendizerrako etapa zapuztu ziguten (beste txango bat egin genuen egun horretan).

Ondorengo proiektuak, **GR-98 edo Urdai-baiko bira**, txip aldaketa garrantzitsu bat ekarri zuen talde honetan. Orain arteko ibilbideak mendietatik urrun zihoazen eta tontorrak igotzeko oso aukera gutxi zeuden. Baina GR-98 honetan ibai-arroarekin batera tontor ugari igo behar ziren eta desnibelak handiagotu.

Hurrengo proiektuek ere (euskal Pirinioetan zehar) joera berbera zeukaten. Horregatik, larunbat eta igandeetako etapak nolabait "berdinduz" joan ziren eta bien arteko horma psikologiko hori apurtuz. Oso errotuta baitzegoen larunbatetan etapa menditsu gogorak egiten zirela eta igandeetan mendi gabeko etapa luze eta lauak. Orain, ordea, ezin esan bata bestea baino gogorragoa denik (proiektu eta etaparen arabera da).

Urdai-baiko bira hau Gernikan hasi genuen 2009ko maiatzean eta 6 etapa barru leku berean amaitu. Padura eta artadi ederrak igaro genituen lehen eta azken etapetan, eta Gaztelugatxe bisitatzeko aukera aparta suertatu zitzaigun. Baina bestela pista eta pinudi itsusiak nagusitu ziren. Oro har jende kopurua asko gutxitu zen.

Hurrengo egitasmoan apustu ausarta egin zen. Aspaldi Urdaburuko bazkide batzuek egindako ibilbide bat berreskuratu genuen: **Erreterria-Lourdes**. Oso ideia deigarria zen eta lehen etapetan batik bat, sekulako jendetza erakarri zuen, jende berria eta baita "larunbatetako" jendea ere. 2009ko abenduan abiatu ginen Erreteriatik. Elurte oso baxu batek 2. etapa zapuztu zigun (autobusa ez zen Erreteriatik irten), baina 2 aste geroago erreperatu zen. Bera eta Saran zehar **GR-10**ekin bat egin eta hau jarraituz Iparraldeko Pirinio osoa zeharkatu genuen.

Oso etapa ederrak izan ziren: Ainhoa, Itsusiko haitzak, Donibane Garazi, Irati, Logibar, Kakueta... Lescunen utzi genuen GR-10a. Hemendik aurrera goi Pirinioak eta negua zetozen. Honela guk geuk asmatutako bideari ekin genion Lourdeserantz. Aspe aranean zehar iparrerantz "ihesi" joan ginen, Santiagoko bidetik. Eta azkenik mendien oin-oineko lautadatik heldu ginen Lourdesa. 15. eta azken etapa nahikoa laburra zen eta Lourdes gaineko Le Béout mendia igotzeko aukera eman zigun.

Ondorengo proiektua, **Euskal Pirinioak (GR-11)**, Errenteria-Lourdes zeharkaldiaren itzulera bezala planteatu genuen. Lourdeserantz euskal

Pirinioak GR-10etik zeharkatu ondoren, GR-11tik bueltatuko ginen Errenteriarra.

Lehen etapa (Lescun-Petrenchema-Linza) udako utzi genuen eta 2. etaparekin abiatu ginen Linzan 2011ko apirilean. Lehen erdian, eguraldia lagun genuela, nafar Pirinioak aranez aran zeharkatzen joan ginen: Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa (Irati), Urrobi. Bigarren erdian, ordea, oso bestelako kontuak izan genituen. Sekulako euria bota zigun Urkiagatik Elizondorako etapan, uholde ugari egon ziren egun horretan. Endaran hasitako azkenaurreko etapa ere kolokan egon zen (elur eta hotz "siberiarraren" alerta). Baina bezperako elurra urtu eta etengabeko euripean egin genuen.



Pastoreo, 7ª etapa. Pico del Fraile en Sierra Salvada. 03-11-2013.



Jaizkibelgo azken etapan ere eguraldi kaskar samarra pairatu behar izan genuen.

2012ko apiriletik urrira **GR-220 edo Iruñerriko bira** osatu genuen. GR honek eskualdeko gailurrak lotzen ditu eta 6 etapak tontorrez tontor joan ziren. Eguraldia oro har portatu zen eta paisaia ugari ikusteko aukera eman zigun, batzuk bitxiak eta atseginak, baina guztiz kontrakoak ere bai: eolikoak, poligonoak, urbanizazioak. Noainen hasi eta amaitu genuen. Etapa batzuetan oso parte hartze txikia izan zen.

Ondorengo egitasmorako ibilbide sortu berri bat hautatu genuen: **GR-283 edo Gaztaren bidea**. 5 etapatan zatitu eta Arantzazun hasi genuen 2012ko azaroan. Goierri eskualdearen bira antzeko bat da Aralar eta Aizkorriko parkeak zeharkatuz. Ibilbideak espero baino askoz gutxiago eskaini zuen mendizaleen ikuspuntutik: Aralar eta Aizkorri oso etekin gutxi, eta bestalde bide urbanizatu (turistiko) gehiegi: asfaltoa, bidegorriak, bide sasinaturalak... Negu latza suertatu zitzaigun, euria edo elurra etapa gehienetan. Baina guztiak onik salbatzea lortu genuen, azkenekoa batik bat, metro beteko elur geruzarekin Biozkorna inguruan.

Senderismo talde honen azken proiektua **GR-282 edo Artzaintza bidea da**. 23 etapatan banaturik talde honek eginiko luzeena da. 2013ko apirilean hasi eta 2015eko maiatzean amaituko dugu.

**Proyecto actual. GR-282 Senda del pastoreo (2013-2015).** Actualmente estamos inmersos en la mitad de este largo proyecto, de 23 etapas y 2 años de duración. Suscitó un gran interés, gracias a su completo y variado recorrido que abarca numerosas sierras y macizos de gran valor montañoso y paisajístico. Pero ahora que llevamos recorrida la

mitad, parece estar ofreciendo menos de lo que debiera (para quienes conocemos nuestros montes). Y es que esta ruta adolece de todos los males de los modernos GRs trazados por políticos desde un despacho.

Pese a su nombre, podemos asegurar que no es una ruta pastoril (hemos visto 2 rebaños y apenas majadas). El recorrido se centra realmente en los parques naturales de Álava y zonas limítrofes, pasando inexcusablemente por todos los *parketxes* y otros lugares turísticos (visitables en coche) que pillan de paso. Pero los trazados en general parecen muy poco cuidados y "trabajados": a menudo se va por lo más sencillo, en vez de buscar lo más bonito y montañosamente interesante para caminar. Y es que tampoco parece una ruta pensada para caminar: los políticos trazaron etapas maratónicas de entre 35 a 50 km y tuvimos que hacer una ardua labor de "ingeniería cartográfica" para dividir sus casi 500 km en 23 etapas asequibles para montañeros normales. Pero no vamos a ahondar más en la gran chapuza y despilfarro que supuso "construir" este recorrido: costó 1,5 millones (de euros) y el 99 % se destinó a cosas innecesarias o prescindibles (en cuanto a caminar siguiendo la ruta). Y, al mismo tiempo, se escatimó en la labor más especializada de señalar con pintura el recorrido: algunos tramos se balizaron por personas que no conocían la zona (incluidas subcontratas). Ahora, pasados 3 años, hay lugares absolutamente bloqueados e intransitables que no parece que se vayan a desbrozar.

Aún nos quedan bastantes etapas de este proyecto (en mayo hemos hecho la etapa nº 13, entre el puerto de Zaldiaran y Okina), que, salvo imprevistos, terminará en mayo de 2015 en Arantzazu. En los próximos meses recorreremos los macizos o sierras de Izki, Entzia, Urbasa, Andia, Aralar y Aizkorri.